noaua



GREBA OROKORRAK USURBIL GELDIARAZI ZUEN

Etxebizitza eta soldata duinen aldeko deialdiak jarraipen zabala izan zuen / **16-17 or.**

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Anerrekak lau urte daramatza Ucinen isurketak ikuskatzen / 06-09



KRONIKA

Haurrak txikitatik euskaraz heztea, gakoa hizkuntzaren erabileran / 12-13



NOAUA

Aurrerantzean, asteburuetan ere orduerdiro egongo da tren zerbitzua / 19



NOAUA

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore Oiardo kiroldegian arituko dira larunbatean / 26

Itxoitera eseri, eta denborarik ez egunkaria zabaltze...

HEMEN DA

TOPO

BERRIA

TOPO berria, inoiz baino arinago.
Esaldia bukatzeko astirik ere ez!
Hiru geltoki berri eta tren bat 7,5 minuturo
Añorga eta Pasaia artean

Berrestreinatu! Azaroaren 21etik aurrera

+info
topo.eus

euskotren

euskal trenbide sarea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE

Abenduak 20
IGANDE GOIZEZ

SAN TOMAS

lehiaketan parte hartzeko deialdia



Herritarrek sagardo eta babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute.
Parte hartzeko azken eguna **abenduak 14.**

1.saria: 300 € + txapela
2. saria: 150 €
3. saria: 60 €

Noaua!k baserritar guztiak gonbidatu nahi ditu

noaua

Usurbilgo Udala

Izan Bai taldearen bigarren diskoaren aurrerapena

Lan berria kaleratzear du Izan Bai taldeak. Momentuz, "Erantzunik bortitzena" izeneko aurrerapena sareratu dute. Zumaiako Ozen estudioan grabatu dute. Ixak Arrutik (ahotsa eta gitarra), Ibon Aginagak (gitarra), Urtzi Olaziregik (baxua) eta Martin Larrañagak (bateria) disko berria hurrengo urtean argitaratuko duten arren, Izan Bai taldeak Youtuben duen kanalean duzue entzungai aurrerapen kanta. Abesti hori, lehenbiziko aldiz, Usurbilgo jaietako kontzertuan eskaini zuten, uztailaren 4an. Emanaldi hura grabatu egin zuten. Kontzertuko irudiekin osatu dute kantaren bideoklipa. Ikus-entzunezkoa H Produkzioak-ek grabatu zuen eta Oihana Rodriguezek editatu du.



Jaietan eskaini zuten lehen aldiz 'Erantzunik bortitzena' izeneko kanta.

Garbigune mugikorra, Aginagan

Azaroaren 19tik 25era Aginagan ipiniko dute Udalak auzoz auzo eskaintzen duen garbigune mugikorraren zerbitzua. Ondoren, Zubietara lekuz aldatuko dute.

Errefus bilketari dagokionez, azaroaren 22an izango da hurrengo bilketa.

Sareren azkenaurreko mobilizazioa

Urte bukaeran amaitutzat emango ditu Usurbilgo Sarek hileroko azken ostiraletako elkarretaratzeak. Beraz, azaroaren 27koa euskal preso, deportatu eta iheslarien eskubideen aldeko azkenaurreko elkarretaratzea izango da, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Helduenentzako zineforuma Txirikordan

Ugartondoko Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioko zineforumaren hurrengo saioa hilaren 26an izango da, arratsaldeko 16:30ean eraikin horretako beheko solairuan. Zer film proiektatuko duten hitzorduan bertan zehaztuko dute.

KzGunea arratsaldez zabalduko dute abenduan

Azaroaren 30era arte, goizez irekiko dute KzGunea. Abenduan, arratsaldez:

- Abenduak 1-3, 16:00-18:00 "Zure bidaia planifikatu".
- Abenduak 4, 16:00-18:00 "BakQ ziurtagiria".
- Abenduak 9-22, 16:00-18:00 "Ofimatika tresnak. LibreOffice".

noaua TOKIKOM
PEFC FSC

Argitaratzailea: Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria: Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Kudeatzailea: Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea: Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna: Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailea: Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.120 ale.
Imprimategia: Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

GIPUZKOA
Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Usurbilgo Udala

BIKAIN
EUSKARAREN KALITATE-ZIURTAGIRIA

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA




LUIS ARANALDE

Naza

Egun hauetan zinemara joateko aukera izan dut eta hiru pelikula ikusi ditut: Los Javisen "La Bola Negra", "Chopin" eta "Naza". Hirurak zein baino zein hobeak.

La Bola Negra Oscar sarietarako aukeratua izan da eta sari guztiak opa dizkiot, hain da aparta Garcia Lorcak amaitu gabe utzi zuen idazki labur batean oinarrituta dagoen filma hori. Chopin guztizko gozamena: bere musika da, agian, gehien hunkitzen nauena. Bere bizitza latza izan arren (39 urterekin hil zen tuberkulosiak jota), sekulako obrak konposatu zituen. J.S. Bach eta Chopin dira nik gehien landu ditudan musikagileak eta nire uste apalean onenak, bai pianorako eta bai organorako. Hirugarren pelikula "Naza" izan da eta bere gainean batez ere egin nahi nuke gaurko gogoeta.

Naza akronimo bat da (hitz batzuen lehen letrarekin konposatutako berba) eta "kalte kolateralak" esan nahi du. Laburbilduz, Israelgo armadak eraso baten ondorioz hilko dituen zibilen kopurua izendatzeko erabiltzen den kodea da. Israelgo armadak hitz hori erabiltzen du albo kalteez ari denean, biktima zibilez alegia. Gazan helburu militar bat suntsitzeko ere bai, agidanez. Pelikula dokumental honen egileak Yuval Abraham eta Rachel Szor izan dira. Tel Aviveko teilatuetan izandako topaketa batzuk biltzen ditu; jakina, gauez eta isilpean filmatuak. Israeldarrek Gazan hilketa kalkulatuen sistemak diseinatu eta erabili dituzten militarrekin hitz egin dute dokumentalaren zuzendariek. Ilunpetan, 24 militar eta ofizialen testigutzak jaso dituzte: alde batetik, genozidioaren ezaugarriak zehatz-mehatz kontatzen dituzte eta bestetik, nola erabiltzen zuten adimen artifiziala



'Naza' filmaren irudia.

bonbardaketak planifikatzeko orduan. Elkarrizketatu dituztenen aurpegiak eta ahotsak digitalki aldatu egin dituzte. Filmak oihartzun handia lortu du nazioartean —Veneziako Zinemaldian Epaimahaiaren Sari Berezia eta 25 minutuko txalo-zaparrada jaso zituen—, baita Euskal Herrian ere, Donostiako Zinemaldiko Perlak sailean aurkeztu zutenean.

Filmak salatzen du nola erabiltzen duten Adimen Artifiziala helburu zibilak eta etxeak bonbardatzeko. Militarrek beraiek aitortzen dute zibilen heriotzak kalkulu matematiko hotz eta bideo-joko baten moduan tratatzen direla. Filmak ez du gerraren ikuspegi panoramiko bat eraiki nahi. Soiltasunaren aldeko apustua egin du. Gauez grabatutako elkarrizketak, argi urria eta lekukoen anonimotasuna dira kontakizunaren ezaugarri nagusiak. "Aurpegiak bigarren planoan geratzen dira, eta hitzak hartzen du protagonismoa. Erabaki militarren atzean dauden ahotsak jartzen ditu erdigunean, eta galdera deseroso bat planteatu: zer gertatzen da zibilen heriotzak, saihestu beharreko ondorio izan beharrean, kalkulu militarren barruan onartutako kostu bihurtzen direnean?", idazten zuen kritiko batek.

Dokumentalaren zati batean, Netanyahu politiko teoriko bat bezala agertzen da eta liburu baten aurkezpenean terrorismoa zer den galdetzen diote. Bere erantzuna garbia eta zalantzarik gabea da: "Zibilak eta errugabeak helburu politikoekin hiltzea".

Hannah Arendt-ek liburu ospetsu bat idatzi zuen: "Gaizkiaren banalitatea edo hutsalkeria". 1961ean, filosofo judu-alemaniar hau Jerusalemen izan zen Eichmannen aurkako epaiketan —milioika judu kontzentrazio eremuetara garraiatzeko logistikaren ardura izan zuen burokrata nazi honek. Eta bere tesiaren gakoak dira: lehenbizi, Eichmen ez zela munstro bat, burokrata bat baizik. Arendt-ek espero zuen tipo sadiko batekin topo egingo zuela eta horren ordez "gizon kaskar, gris, harroputz eta psikologikoki guztiz normal bat" aurkitu zuen. Bigarrenez, pentsamendu kritikoari guztiz uko egin ziona. Eta hirugarrenez: agintzen ziotena betetzea zen bere kezka bakarra. Eichmannek argudiatzen zuen ez zela erruduna, "aginduak bete besterik ze zuela egin". Arendtek termino hori, hau da, gaizkiaren hutsalkeria sortu zuen "ez genozidioaren larritasuna minimizatzeko, baizik eta azaltzeko, historiako krimenik handienak pertsona arruntek egin ditzaketela sistema totalitario baten barruan". Gaiztakeriarik makurrena ere zerbait arrunta, hutsala bihurtzen da, etika saihesten denean. Hori frogatu nahi dute NAZA dokumentalaren irudiek eta bertan parte hartzen duten militarren testigantzek.

"GAIZTAKERIARIK MAKURRENA ERE ZERBAIT ARRUNTA, HUTSALA BIHURTZEN DA, ETIKA SAIHESTEN DENEAN"

Tailerren zikloa Santuenean

Hiru tailer antolatu ditu Santuenea Kultur Elkarteak asteotarako:

Azaroak 20, ostirala

• 17:00 Ontzien dekorazioa Inma Arroyoren eskutik ludotekan. Prezioak: Santuenea Kultur Elkarteko bazkideek euro bat, bazkide ez direnek 2 euro.

Azaroak 21, larunbata

• 10:30-13:30 Belarritako eta koilareen tailerra Ibai-Ondo Backyard-ekoen eskutik, Santueneako frontoi ondoko lokalean, 16 urtetik aurrerakoentzat.

Abenduak 4, ostirala

• 17:30-20:00 Sendabelar tailerra Santueneako frontoi ondoko lokalean, Leire Lazkanoren eskutik: "Gorputzaren zaintza "desodorantea, hortzetako pasta...

• Prezioa: Santuenea Kultur Elkarteko bazkideek 15 euro, bazkide ez direnek 20 euro.

Saioetako izen-ematea: santueneake@gmail.com 621 095 644.

Ekintza ugari udal liburutegian

Azaroak 23, astelehena

• 18:00 Ines Bengoaren ipuin kontaketa, 6 urtetik gorakoentzat.

Azaroak 27, ostirala

• 17:00 Irakurketa solasaldia 9 urtetik gorakoentzat. Yolanda Arrietaren "Mari Xor" liburua izango dute mintzagai.

Azaroak 30, astelehena

• 17:00 Irakurketa solasaldia 12 urtetik gorakoentzat. Euskadiko Haur eta Literatura Sariaren irabazle Yolanda Arrietaren "Zurtz" liburua izango dute mintzagai.

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Bidegorri seguru eta zuzenaren eske

Sortalde Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateak bizikleta martxa bat antolatu zuen aurreko asteburuan.



"Aspalditik eginda egon behar lukeen bidegorria eskatzeko" batu ziren.

Bizikleta martxa Mikel Laboa plazatik abiatu zen, Zubietatik barrena Errekalderaino joan zen eta N634 errepidetik itzuli zen gero.

Antolatzaileen esanetan, "bizikleta da mugikortasun tresna bat oso baliagarria, energia kontsumo eraginkorra duena. Horregatik erabaki dugu bizikleta martxa hau egitea, bizikletaren erabilpena sustatzeko herrian eta aspalditik eginda egon behar lukeen Donostia eta Usurbil arteko bidegorria eskatzeko".

Izan ere, bat baino gehiago da herrian, Gipuzkoako hiriburura joateko bizikleta erabiltzen duena, lantokira nahiz ikastera joateko, baina Zubieta, Kalezar edo Arratzaindik barrena joan beharrean aurkitzen dena. Egoera horren aurrean, "bide eraginkor bat" eskatu zuten.

Ibai-Ondo Backyard erronkan izena emateko garaia

Santuenea, Atallu eta erriberatik barrena, Txokoalde lotzen dituen 6,7 kilometroko ibilbidea orduero egitea, nahi den erritmoan. Horixe da Ibai-Ondo Backyard erronkaren gakoa. 2025ean egin zuten estreinakoz, bigarren edizioa aurten. Hirugarrena prestatzeko lanketa betean dira antolatzaileek. Aurreko edizioen antzera, izena emateko epealdia zabaltzear dute, ohar bidez jakinarazi dutenez.

3. Ibai-Ondo Backyard 2027ko martxoaren 20ko asteburuan izango da. Egun horretan hasiko da, noiz amaituko den ordea, ezin jakin. Azken lasterkariak azken itzulia emandakoan bukatuko da.

Azaroaren 28ra arte, lehentasuna usurbildarrek izango dute

Iraupen argirik gabeko proba berezi horretarako orain izango dute izena emateko aukera parte hartzaileek. Antolatzaileen arabera, aurreko edizioen ildotik, bi faseetan egituratu dute inskripziorako deialdia. Hasteko, usurbildarrek izango dute lehentasuna, azaroaren 22tik 28ra. "Fase honetan, Usurbilen erroldaturiko 25 pertsonek izena emateko lehentasuna izango dute, horien artean Santuenea auzoko Ibaiondo elkarteko 5 bazkideek", antolatzaileen esanetan.

Segidan, abenduaren 1ean irekiko da izen-emate orokorra, iluntzeko 21:00etan eta hala segiko du, erronka "hasi baino zazpi egun lehenagora arte edo eskuragarri dauden 100 plazak bete arte".

Izen-ematearen truke, 45 euro ordaindu beharko dira. Inskripzioak helbide honetan bideratu beharko dira: ibaiondobackyard.eus atarian. Izena emandakoan antolatzaileek jakinaraziko dute onartua izan den edo ez. Onartua izanez gero, bigarren email bat jasoko du parte hartzaileak datu gehiago eman eta ordainketa nola egin argitzeko.

IKA-MIKA

Indarkeria matxistaren aurrean, erantzun publiko komunitarioa indartzeko lanean ari gara Usurbilen

USURBILGO GAZTE FEMINISTAK, EMAKUMEEN ETXEA, USURBILGO UDALA

Azaroaren 3an, Usurbilgo Gazte Feministak, Emakumeon Etxeko Talde Sustatzaileak eta Udalak herriko hainbat eragilerekin bilera egin genuen Txirikordan, indarkeria matxistaren aurrean herri gisa eman beharreko erantzun publiko komunitarioa lantzeko.

Bileran, batetik, Usurbilgo indarkeria matxistaren inguruko datuak eta Udalak eskaintzen dituen arreta baliabideak aurkeztu ziren. Apiriletik urrira bitartean, indarkeria matxistako 27 kasu berri erregistratu dira herrian, erregistro ofizialetatik.

Hain zuzen, II. Erakunde arteko protokolo bileratik, (protokolo hau honako erakunde hauek sinatu zuten: Usurbilgo udaleko Gizarte Zerbitzuetako departamenduak, Udaltzaingoak, Berdintasun sailak eta autonomia erkidegoaren eskumeneko erakundeak, hain zuzen, Ertzaintzak eta Osakidetzak) jasotako datuak dira. Azpimarratu zen, hala ere, datu horiek arazoaren zati bat baino ez dutela erakusten, laguntza eskatu ez duten emakumeen egoerak ez baitira erregistroetan agertzen.

Bestetik, Gazte Feministek herri mailako erantzun publikoari dagokionez, azken urteetako bilakaeraren inguruko hausnarketak partekatu zituzten. Besteak beste, azken 9 urteetan indarkeria matxista salatzeko ardura Gazte Feministak izan dutela eta horrek, feministen jarduna zamatu eta herria problematikatik urrundu duela adierazi zuten. Hori dela eta, indarkeria matxistaren aurkako erantzuna herriko zenbait eragileen artean antolatzeko beharra nabarmendu zuten. Helburua ardura kolektibizatzea eta erantzun publiko sendoagoa eta koordinatuagoa eraikitzea da. Norabide horretan, hainbat proposamen landu ziren: herrian gertatutako indarkeria matxista kasuen aurrean erantzun bateratuak antolatzea eta Euskal Herriko erailketa matxisten aurrean ere, eragileen arteko erantzun publikoak antolatzea. Betiere, erasoa jasan duen emakumearen nahiak eta beharrak erdigunean jarriz.

Aurtengo azaroaren 25a baliatu nahi da indarkeria matxista publikoki salatzeko eragileen arteko antolamendua martxan jartzeko. Horretarako, 17:30etan elkartuko gara Sutegiko erakustaretoan proposamen berria lantzeko, eta horren ostean, 19:00etan elkarretaratzea egingo dugu Mikel Laboa plazan.



Anerrekak "Ucin–2025 urteko Ingurumen Zaintza-Planaren eta etengabeko neurrien azterketa" txostena plazaratu du.

"Urtero gertatzen dira urraketak"

JOXEMARI IRAZUSTA, JOSE MARIA RIVADENEYRA ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA

Anerrekak lau urte daramatza Ucinen isurketak ikuskatzen. "Eusko Jaurlaritzak egiten duen online jarraipenean, ezarritako mugen gainditzeak ematen dira baina enpresak egiten duen txostenean sarritan ez dira aipatu ere egiten". Kontraesan hauek urtero ematen direla salatu dute NOAUA!ri eskainitako elkarrizketa honetan.

IMANOL UBEDA

2025. urtean etengabeko neurketa-sistemek erregistratutako informazioa eta Ucinek osatutako Ingurumen Zaintza Planaren txostena aztertu dituzue. Bi informazio iturriak alderatu dituzue eta lan horren emaitza da txosten honetan jaso duzuena, ezta?

Jose Maria Rivadeneyra (J.M.R.): Legez, Ucinek urtero-urtero txosten bat entregatu behar du, urteko Ingurumen Zaintza Plana delakoa, non jasotzen dituen urteko gorabeherak. Jarraipen txosten bat da, horrek balio behar du balizko arazoak atzemateko eta, hortik abiatuta, konponbideak topatzeko. Hori da ideia. Hori da legez bete behar duen kontu bat. Eusko Jaurlaritzak Ucini emandako Ingurumen Baimen Bateratuan (IBB) hala dator jasoa. Betebehar bat da.

Ucin, duen instalazio motagatik, etengabeko neurketa sistema bat jartzera behartuta dago. Sistema horren arabera, aldiro-aldiro neurketak egiten dira eta jaso egiten dira. Guk egin duguna izan da neurketa horiek diotena eta enpresak bere txostenean (Ingurumen Zaintza Planean) islatu duena alderatzea.

Bide batez, bestelako gorabeheren errepaso orokor bat egin ohi dugu. Urtean zehar gaiari jarraipena egiten diogu eta bestelako arazorik sortzen bada, txostenean jasotakoarekin alderatzen dugu.

Joxe Mari Irazusta (J.M.I.): Hau ez da orain sortu den zerbait. Guk lau urte daramagu hau egiten. 2022an hasi ginen eta urtero egiten dugu lanketa hauxe, eta guk bakarrik egiten dugu. Hori berez, Eusko Jaurlaritzaren egitekoa beharko luke. Bere eskumena da.

Horrelako jarduera duten enpresek Eusko Jaurlaritzara bidaltzen dituzte txosten hauek guztiak, eta guk dakigula, Eusko Jaurlaritzak txosten horiek jaso bezala, apal batean gordetzen ditu. Ez dute besterik egiten. Eta guk haiek egin beharko luketen analisia eta azterketa egiten dugu. Udalak ere eska zezakeen. Baina Udalak ez du eskatzen. Guk eskumenik ez dugu, baina badugu kezka. Eta kezkak eraginda egiten dugu lanketa hau. Publiko egiteaz gain, batari zein besteari (Eusko Jaurlaritzari eta Udalari), gure azterlanaren berri ematen diogu.

Anerrekak interesatu estatusa eskuratu du Ucinek Usurbilgo instalazioetan aluminioa galdatzeko jarduerari buruzko espedientean, eta horri esker eskuratzen duzue Ingurumen Zaintza Plana, ezta?

J.M.R.: Ingurumen Zaintza Plana eskatu egin behar da. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak aldiz, ofizioz jasotzen dute. Beraien ardura da txosten horiek aztertzea eta zeozer baldin bada, egitea. Bestetik, etengabeko neurketa horiek, espreski jaso behar dira. Urtean behin jasotzen dira.

Iaz, esate baterako, egoera berezi bat eman zen eta bitan eskatu genituen etengabeko neurketen emaitzak.

J.M.I.: Urtea amaitzean, enpresak hiru hilabeteko epea du informazio hori dena aurkezteko. Hurrengo urteko martxoaren 31 bitarte. Eusko Jaurlaritzak bere aldetik, urtean zehar, jarduera jakin batzuen emisioen jarraipena egiten du, online.

Eta emisioen jarraipen hori publikoa al da? Kontsultatu al daiteke?

J.M.I.: Ez, eskatu egin behar da. Espreski eskatzen baduzu, txostena bidaltzen dizute. Guk biak eskatzen ditugu: Enpresak Eusko Jaurlaritzara bidaltzen duen

"NEURKETA SISTEMAK DIOENA ETA ENPRESAK BERE TXOSTENEAN ISLATZEN DUENA ALDERATZEN DUGU"

"GUK BAKARRIK EGITEN DUGU LANKETA HAU. ETA BEREZ, EUSKO JAURLARITZAK EGIN BEHARKO LUKE"

→ txostena, batetik; eta Eusko Jaurlaritzak berak urtean zehar neurtu duena, bestetik.

Adibide bat jarriko dugu: atzo usain txarra sumatu zen Atxegalde partean. Atzoko datua kontsultatu daiteke nonbait, online?
J.M.I.: Ez, eskatu egin behar da. Eta denbora batera bidaltzen dute.

Erregistro hori ez dago web orri batean kontsultatzeko moduan, denbora errealean?
J.M.I.: Ez. Eskatu egin behar da espreski.
J.M.R.: Halako sistema bat jartzea eskatu izan dugu, datuak denbora errealean jarraitu ahal izateko, baina ez dute antzeko sistemarik ipini oraindik.


"Urtero-urtero gertatzen dira urraketak. Batzuk agertzen dira enpresaren Ingurumen Zaintza Planean, eta beste batzuk ez".

2022an hasi zineten datuok jasotzen. Aldea dago urtetik urtera, ala paretsuak dira beti?
J.M.R.: Beti daude muga-gainditze batzuk. Urtero-urtero errepikatzen dira. Data batzuetan adibidez, besteetan baino probabilitate gehiago daude. Abuztua adibidez, hilabete kritiko bat da. Abuztuan jarduera eten egiten da eta ustez filtroen edo iragazkien garbitzea eta halakoak egiten dira. Abuztuko etena eta gero, berriz ere makinak martxan jartzen dituztenean, datu kezkagarriak izaten dira, baina baita beste data batzuetan ere.

Aldi berean, urtero agertzen dira kontraesan horiek: Eusko Jaurlaritzak egiten duen online jarraipenean, datuen gainditzeak ematen dira baina enpresaren txostenean, sarritan hori ez da aipatu ere egiten.

Honi lotuta, eta zuen txostenean jasota dagoenez, Ucinek sistematikoki urratu zuen 2025ean Ingurumen Zaintza Plana. Hori nola liteke?
J.M.R.: Hala da. Urtero-urtero egoten dira urraketa puntualak. Bi, hiru, lau egunetan: martxoan, apirilean eta abuztuaren amaieran, iraila hasieran. Hori lotuta dago prozesua berriz martxan jartzearekin.

2025ean ezohiko egoera bat gertatu zen. Irailetik urrira, hilabete oso batean zehar, ia egunero gainditu zuten muga. Ezarri duten sistema berri batekin lotuta dago. Baina oso deigarria da hilabete osoan zehar urratu izana muga, eta ezer ez gertatzea.

Eta Ingurumen Zaintza Planean islarik ez du horrek?
J.M.R.: Bi kontu daude: bat, etengabe urratu da muga, eta berez etengabeko neurketa sistemaren helburua da arazoa garaiz atzematea, momentuan erreakzionatzea eta balizko arazoa konpontzea. Eta bide batez, Eusko Jaurlaritzari jakinarazi egon den arazoa eta zer nolako neurriak hartu diren arazoa berriz ez gertatzeko. Hilabete osoan horrela egon bada, horrek esan nahi du ez zaiola inolako kasurik egiten alarma sistema horri. Hori da lehen arazoa.

Eta bigarren arazoa, ezkutatu egin dute. Ingurumen Zaintza Planean ez dute aipatzen hori gertatu denik. Zoritxarrez, portaera hau ez da berria. Urtero-urtero gertatzen dira urraketa horiek, batzuk agertzen dira eta beste batzuk ez. Sistematikoa da. 2025ekoa are larriagoa da, hilabete osoz eman zelako urraketa. Kezkatuta gaude, alarma sistema hori ez dutelako erabiltzen; itxurazko kontu bat dela dirudi.

Beste kezka bat ere badugu, zer egin dute arazoa konpontzeko? Bi aukera daude. Arazoa konpondu dute eta harrez gero gauzak ondo joan dira. Ondorioz, neurketak parametro egokietan sartu dira. Edo bigarrena, neurketa sistema ukitu dute, parametroak eurek nahi duten bezala ateratzeko. Ez dakit ulertzen den.

Baina iradokitzen duzun balizko manipulazio hori burutzea, hain erraza al da?
J.M.R.: Nik uste baietz, xurgatze-sistemaren potentziaz ari gara. Etxean, kea xurgatzeko sistemarik ba al duzu sukaldean?

Extraktorea edo ke-erauzgailua?
J.M.R.: Bai. Ematen diozun potentziaren arabera, gehiago edo gutxiago xurgatuko du. Gehiago xurgatzen badu, iragazkietan edo filtroetan gehiago atzemango da eta neurgailuak lehenago atzemango du. Gehiegizkoa bada eta xurgatze-sistemak ezin badu zikinkeria hori dena erretenitu, ba saltatuko du. Potentzia jaisten badiozu ordea, iragazte-sistemak jasoko du iragazten diona bakarrik, eta mantenduko du parametro jakin batzuetan.

Adibide bat jarriko dugu: zerbait frijitzen hasi zara etxeko sukaldean, eta kristoren kea sortu da. Kanpaiak ezin du dena irentsi, sukaldeko leihoa irekitzen duzu eta ke hori kanpora ateratzen da. Antzekoa egiten dutela iruditzen zaigu. Eta nola da posible? Teilatua itxi egin beharko lukete. Bai, itxi beharko lukete.

Esaten dudan guztia espekulazio hutsa da, hipotesi bat. Ez dut frogarik. Kontua da bere txostenean enpresak ez duela esaten zer gertatzen den, ezta hori konpontzeko zer egiten duen. Beraz, hipotesi guztiak irekita daude. Eta hau da benetako arazoa. Txostenean jaso dugun argazkia 2025eko ekainaren 13koa da.

"ETENGABEKO NEURKETA SISTEMAREN HELBURUA DA ARAZOA GARAIZ ATZEMATEA ETA BALIZKO ARAZOA KONPONTZEA"



Anerrekaren txostenean jasota dagoen argazki hau 2025eko ekainaren 13koa da. ARGAZKIA: ANERREKA.

"Udalak ere zer edozer esan beharko luke"

Anerreka Ingurumen Elkarteak argi dauka: gai honetan, eskumena Eusko Jaurlaritzarena da. Hala ere, txostena Udalari ere bidali diote, "bere eskuduntza ez bada ere, gure herria da eta zer edozer esan beharko luke. Guk gehiago ezin dugu egin".

2025eko ekainaren 13an, urteko intzidente larrienetako bat gertatu zela diozue. Zuen ustez, zer gertatu zen?

J. M.R.: Matxura bat izan zuten eta automatikoki xurgartze-sistema gelditu egin zen. Horren ondorioz, ke guztiak kalera atera ziren zuzenean. Zer da kezkagarriena? Egun horretako etengabeko neurketa sistemako parametro guztiak normalak direla. Horrek zer esan nahi du? Lehen aipatu dugun hipotesia, xurgatze-sisteman jaisten baduzu potentzia, erregulatu dezakezu zenbat ke atera tximiniatik, zenbat ke atera leihotik. Eta gure hipotesiaren arabera, akaso hor dago tranpa.

Hainbat gorabehera zerrendatuta datoz Ucinen txostenean. Egun jakin batzuetan izandako balio altuen inguruan hainbat azalpen eskaintzen dira. 12. fokuan (SMEC sisteman), 6 egunetan erregistratutako balio altua honela justifikatzen dute: "labeak piztu berritan hartutako lagin gutxi izateagatik, eta hezetasunak eragindako neurketa akatsak". Maiatzeko beste bi egunetako balio altuaren zergatia honela arrazoitzen dute: bi mahuka puskatu zirelako. Abuztuko beste bi egunetako balio altua, abiatzean arazo bat izan zelako mahuka batean.

J. M.R.: Horiek guztiak normaltzat har daitezkeen intzidentziak dira. Halako lantegi batean arazoak sortzen dira. Dena ez da perfektua, eta arazoak daudenean ba alarma sistema aktibatzen da. Eta gero, euren azalpenak ematen dituzte. Horiek denak normaltasun batean har ditzakegu. Baina juxtu ezohikoak direnean, horietaz ez da ezer esaten.

Zuen txosteneko ondorioen zerrenda luzea da. Besteak beste, hauxe diozue: "Ucin enpresan ez da betetzen ari Ingurumen Baimen Bateratuak ezarritako berme nagusia atmosferara egiten diren isurketei dagokienez". Eta orain zer?

J. M.R.: Ikusita badaudela kezkagarriak diren datuak, txostena Eusko Jaurlaritzari helarazi diogu, bere ardura delako hau guztia zaintzea. Udalari ere bidali diogu, bere eskuduntza ez bada ere, gure herria da eta zer edozer esan beharko luke. Guk gehiago ezin dugu egin.

J.M.I.: Kezkagarria da. Osasun arazo larri bati buruz ari gara. Hemen urraketa larri bat gertatzen ari da eta adierazgarria da gu bakarrik ibiltzea hor gertatzen ari denaren jarraipena egiten. Eta aldiz, eskumenak dituzten erakundeak ezikusiarena egitea. Udalak eskumenik ez eduki arren, kezka hori ez agertzea, guretzat harrigarria da. Aldi berean, esatekoa da, hor langile batzuk ari dira lanean, baldintza txarretan, eta sindikatu batzuk daude tartean.

Sindikatuekin batu al zarete?

J.M.I.: Saiatu gara baina ez dugu lortu. Baina beraien ekimena izan beharko luke; euren sindikatuko langileak daude lanean. Kanpotik ikusten denean horrelako egoera bat (ke beltza), pentsatzekoa da izugarria izan behar duela barruko egoerak. Eta hor osasun arrisku larriak daude, baina sindikatuek orain arte ez dute ahorik ireki.

943 361182
EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata
Kalezar Auzoa 12, OB, USURBIL Tel 943 73 20 27

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835

ZER DIYO?

ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA

Urmaelen gune berri bat abian jartzeko ahaleginean

Gizakiak lehortu, kutsatu, desagerrarazi eta ahaztutako ekosistemak izan dira mikrohezeguneak. Fisikoki txikiak, baina biologikoki aberastasun handiko mikrohabitatak dira. Burruntzi, sorgin orratz, kakalardo, armiarma zein igelek asko estimatzen dituzte eurentzako bizileku hauek. Halako guneak ingurumenarentzako daukaten garrantziaz jabeturik, aspalditik dihardu berreskurapen ahaleginean Aranzadi Zientzia Elkarteak. Hain zuzen Aranzadi Zientzia Elkarteko herpetologia saila arduratzen da langintza honetaz, eta jada, hainbat eragileren laguntzaz, Hego Euskal Herrian zehar hezeguneen sare zabal eta egonkor bat egituratzen dabiltza. Horregatik, Agerre azpi eta Ollokiko errekastoaren artean dauden bi mikrohezegune erabilgarri jartzeko asmoarekin, Aranzadi Zientzia Elkarteko Ion Garinekin elkarlanean dihardugu joan zen apirilaz geroztik.

Duela 7 urtetik abian da Hego Euskal Herrian Eskoletako Urmaelen Sarea ekimena Aranzadiren eskutik. Denbora horretan 65 hezkuntza zentrok jarri dituzte abian urmaelak. Gure kasuan ere, erabilera didaktiko bat ematea izan da akuilu, aipatu bi mikrohezegune horiek herriko gune urbanoan bertan baitaude.

Joan zen apirilean gonbidatu genuen Aranzadiko herpetologia sailaren arduraduna Olloki errekastoaren ibilguan dauden bi mikrohezeguneak ikustera. Egindako bisitaren ostean mikrohezegune hauek erabilera didaktiko baterako baliatzeko proposamena landu dugu Aranzadirekin elkarlanean. Proposamena eskutan, herriko hezkuntza eragileei eta udalari aurkezpenak egin eta erabilera egoki bat izan dezan, beharrezko azalpenak ematen jardun gara azken hilabeteotan.



"Espero dugu, datorren neguan ez bada, beranduenez hurrengo udaberrian abian izatea gune hau".

Dagoeneko, herriko hezkuntza eragile guztiek (Aginaga eta Zubietako eskolak, eta Udarregi ikastolak), bere atxikimendua adierazi diote Olloki errekastoaren ondoko urmaelen proiektuari, baita, udalak bere gain hartu du abian jarri aurreko prestaketa edo egokitzapen lanen ardura eta finantzaketa. Jada, urmaelak inguratzen dituen itxitura egina du udalak. Halere, saiatuko gara prestaketa lan batzuetarako auzolan deialdi irekiak egiten, horrela, herritar orok bere alea jartzeko aukera izan dezan proiektu herrikoi honetan.

Espero dugu, datorren neguan ez bada, beranduenez hurrengo udaberrian abian izatea urmaelen gune hau. Horrela, desagertzeko arrisku larrian dagoen hegoaldeko zuhaitz-igel edo Igeldoko igeltxoa babesteko Mendizorrotz mendigunean dauden hezeguneez gain, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko beste gune bat izango dugu Usurbilgo herrigunean bertan.

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

TXAPELDUN
ARDANGELA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA
Muna lurra 2, 943 49 88 83



Diru kontuak, "Esnatu" dinamika eta bi hitzarmen izan zituzten hizpide udal ordezkariek urriaren 29ko osoko bilkuran.

"Esnatu" dinamikaren aldeko mozioa

"Esnatu" izeneko ekimena aurkeztekoa zen asteazken honetan, azaroaren 18an, haren sustapen lanetan diharduen herri eragileen batzordeak. Aldez aurretik, gai horri buruzko mozioa onartu zuen udalbatzak.

ARITZ LASARTE

"Era guztietako eragileak ahalduntzea eta eremu euskaldunek bizirik iraun dezaten haien konpromisoak sustatzea", da udalerri hau kide duen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) abiarazitako dinamikaren helburua. Izan ere, "gaur egun bezala jarraituz gero, eremu euskaldunenean ere euskarak atzerantz egingo duela diote ikerketek, eta horri erantzuteko eta egoera iraultzeko arduratik sortutako ekimena da, hainbat eragileren laguntzarekin". Urria amaieran eginiko osoko bilkuran gai horri lotutako mozioa aho batez onartu zuten EH Bildu eta EAJ alderdietako ordezkariek. Testu horretan, "biziberritze-prozesuan euskara sustatzeko" hainbat konpromiso hartu zituzten: erabilera-planean onartutako hizkuntza-irizpideak betetzea; kontratazio publiko guztietan hizkuntza-baldintzak txertatu eta horien jarraipena egitea; doako euskalduntzea bermatzea; haur eta gaztetxoen aisialdia euskara hutsean programatzea; udalen eskumeneko esparruetan euskararen normalizazioan urrats sendoak ematea; etorri berriak euskarara gerturatzeko egitasmoetarako edota zenbait arlotako langileak euskalduntzeko bitartekoak areagotzea; eta "Esnatu" dinamikari lotutako gogoeta-prozesua egitea herrian, askotariko herritar eta eragileekin batera.

"EUSKARAREN ETORKIZUNAZ HAUSNARTZERA GONBIDATU NAHI DITUGU"

Azken konpromiso hau, hausnarketa prozesua gauzatze bidean jarri asmo dute. Prozesu horretan, "Usurbilen euskarak izango duen etorkizunaren inguruan hausnartzera gonbidatu nahi ditugu" herritar eta eragileak, Maialen Iñarra udal ordezkariak azaldu zuenez. Mozioaren eduki arekin bat egin zuen baita EAJ-k. Ivan Iriondo Axpe zinegotziak gaineratu zuenez, "gustatuko litzaiguke balorean jartzea, gizarte osoak, Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak egiten duten lana".

"14,3 MILIOITIK 22 MILIOI EUROKO AURREKONTUAK IZATERA IGARO GARA"

Azken kreditu aldaketa

Mozio horren aurretik, bi modalitateko kreditu aldaketa onartu zuten, aurtengo hirugarrena eta azkena, urte amaierako premiei aurre egiteko, guztira, 250.000 eurokoa, "aurrez zeuden partidetara diru gehiago bideratzea" ahalbidetuko duena. 50.000 euro baliatuko dituzte udaletxeko bigarren solairua eraberritzera, 22.000 euro gehiago (guztira 42.000 euro) ikastetxeen egokitzapen lanetara edota 100.000 euro gehiago Santueneako bilgunea berritzera. Udal aurrekontuetako hainbat partidetan erabili gabeko dirua baliatu dute kreditu aldaketa horretarako,"inbertsio berriak egiteko", Usurbilgo alkatearen esanetan.

Hainbat partidetara, urtean zehar eransten joandako diru kopuruarekin, inoizko udal aurrekontu handienak izatera heldu da herri hau. Izan ere, hasierako "14,3 milioi eurotik 22 milioi eurora igaro gara", urte hasieratik eginiko diru txertaketak tarteko. Diruzaintza gerakinak, mediku etxearen salmentak nahiz Oiardo kiroldegiko sutearen kalteei aurre egiteko jasotako kopuruak zer ikusi zuzena izan dute hazkuntza horretan.

Bi hitzarmen

Azkenik, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak sinaturiko lankidetza hitzarmena hurrengo irailaren 30era arte luzatzea erabaki zuen udalbatzak aho batez. Horrez gain, Udalak EAEko Administrazio Orokorrarekin eta Ecoembesekin sinatuko duen hitzarmenera batzea erabaki zuen udalbatzak.

Senidetzea ekarri du aurtengo txalapartaren festak

Jexux Artze K.E.-k azaroaren 14an antolaturiko Txalaparta Festak Usurbilgo eta Oiartzungo herriak senidetu zituen.



Txalaparta nahieran jo eta entzuteko aukera eskaini zuen jaialdiak.

Ttakun hotsek hartu zuten herria azaroaren 14an. Txalaparta eta haren bueltako kultura herri bizitzaren erdigunean kokatu zuen beste urte batez Jexux Artze Kultur Elkarteak antolaturiko jaialdiak. Eguerdi partean eman zioten hasiera, bi orduko etenik gabeko herri erromeriarekin. Askotariko joaldi eta jotzaileek parte hartu zuten txalapartaren festan. Adarjoleak eta dultzaina nahiz pandero joleak izan zituzten bidelagun. Arratsaldean, euria tarteko, Sutegin eta frontoian moldatu behar izan zituzten herrian zehar eskaintzekoak ziren saioak. Hasteko, Jexux Artze Txalaparta Eskolako kideek urtean zehar eginiko lanketa ederra plazaratu zuten. Jaialdia borobiltzeko, Esku Txa eta Kimu Txalaparta taldeek frontoian eskainitako emanaldien aurretik, Oiartzungo Makilakixki eskolako kideek ere saioa eskaini zuten Sutegi sarreran. Une horretan, herri haren eta Usurbilen artean, txalapartaren kulturaren bueltan urteotan izandako hartuemana estutzetik senidetzera igarotzera zihoazela iragarri zuen eskola hartako ordezkari eta Oreka Tx-ko kide Harkaitz Martinez de San Vicentek. Hala, aurrerantzean, bi herriotako eskolek batera antolatuko dute Txalaparta Festa, txandaka bi herriotan; 2027koa Oiartzunen ospatuko da. Lankidetza testuinguru horretan, "iruditzen zaigu, antzekotasun handiak ditugula elkarren artean eta bi eskolak elkar elikatuko direla nolabait, ikasleen arteko harreman horretan".

USURBILGO ETA OIARTZUNGO HERRIEK BATERA ANTOLATUKO DUTE TXALAPARTA FESTA



Usurbilgo eta Oiartzungo senidetzea irudikaturiko ekitaldia.



Esku Txa taldekoek frontoian eskainitako emanaldia.

KUTXA FUNDAZIOA

Gipuzkoa Ahalbidetuz

Ideia berriak egi bihurtzeko behar duzun laguntza.

"Familietan euskararen transmisioa egitea funtsezkoa da gure hizkuntzak bizirauteko"

Buruntzaldeko udaletako euskara zerbitzuek garbi daukate haurrak txikitatik euskaraz hezteak bermatzen dituela hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, eta aspalditik ari dira bide horretan lanean. Besteak beste, haur jaioberri guztien familiei ematen diete opari sorta, euskararen transmisioan laguntzeko materialarekin.

BURUNTZALDEA EUSKARA

Euskararen transmisioa familiaren bitartez eman dadin errazteko, 20 urte baino gehiago daramatzate lanean Buruntzaldeko sei udalek. 2003an hasi zuten bide hori eskualdeko udaletako euskara zerbitzuek, Andoainen, Astigarragan, Lasarte-Orian, Hernanin, Urnietan eta Usurbilen; eta bide horrek ez du etenik izan. Alderantziz, urte hauetan guztietan egin dute lan, gurasoak jabetu daitezen euskararen transmisioan zer garrantzi duten.

Nabarmendu dute «funtsezkoa» dela familietan euskararen transmisioa egitea, «gure hizkuntzaren biziraupenerako». Izan ere, diote haurrak txikitatik euskaraz hezteak bermatzen dituela hizkuntzaren ezagutza eta erabilera, eta, aldi berean, sustatzen duela euskararen normalizazioa.




Sentsibilizatzeko eta euskara indartzeko, ekimen ugari

Bide horretan, gurasoak dira «haurraren lehen erreferenteak», eta eragin handia dute hizkuntzaren transmisioan. Hori balioan jartzeko eta «etxeetan geure egiteko», hainbat ekimen jarri dituzte martxan eskualdean, modu bateratuan. Besteak beste, eskaini dituzte hitzaldiak, sortu eta gauzatu dituzte egitasmo berezituak ikastetxe nahiz eragileekin batera, eskura jarri dituzte informazio-eskuorriak eta gidak, eta harrera-saioak egin dituzte haur jaioberrien familiekin. Baina sentsibilizazioaz gainera, euskara indartzeko ere egin dituzte hainbat ekimen euskara zerbitzuek, eta ari dira horretan oraindik ere, sei herrietan: gurasoentzako euskara-eskolak, familientzako lantegiak, Gurasolagun proiektua, begiraleentzako formazioa...

Guraso berrientzako opariak

Euskara indartzeko ekimen horietako bat da sei udalerrietan, haur jaioberrien familiei opariak egitea. Opari horiek helburu dute euskararen transmisioa sustatzea, eta baliabide praktikoak dira «gurasoen eta haurren euskararen erabileran eragiteko». Baliabide eta material horien guztien berri jaso dugu aldameneko koadroetan.



HAZI HEZI ALDIZKARIA

Hik Hasik argitaratuta, aldizkari espezializatua da, gurasoei eta hezkuntzako profesionalei zuzendutakoa.


Hezkuntzarekin, pedagogiarekin eta hazkuntzarekin lotutako gaiak jorratzen ditu aldizkariak. Aldizkariaren ale bana ematen diete guraso berriei.



LIBURUXKA TOLESGARRIA

Koloreak, animaliak eta zenbakiak ikasteko baliabideez gain, liburuxkak **haur kantak, jolasak eta esapide erabilienak** jasotzen ditu.

Gainera, beste liburuxka txiki baten bitartez, aholkuak ere eskaintzen dituzte gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera egokituta, euskararen transmisioan laguntzeko.



'ONGI ETORRI JAIOBERRI!' KARPETATXOA

Haur jaioberrien familiei ematen zaizkien opari eta baliabide guztiak karpetatxo batean bilduta eskaintzen dizkiete; eta karpetan bertan, mezu hauxe ageri da: 'Ongi etorri! Zorionak zure haurraren jaiotzagatik!

Mezu hori, baina, hamabost hizkuntzatan idatzita ageri da.



HOZKAILUAN JARTZEKO IMANA

Eguneroko esamolde ohikoenak jasotzen ditu, eguneko lau unetan sailkatuta: agurtzeko esamoldeak, otorduetan erabiltzekoak, egunean zehar baliatu daitezkeenak, eta gauekoak.

Hozkailuan itsastekoa izanik, gurasoek begibistan izango dute edozein unetan, behar dutenerako erabilgarri.



WEBGUNEKO EDUKIAK

Buruntzaldea Euskaraz atarian (euskara.buruntzaldea.eus) beste hainbat baliabide daude eskuragarri: eskualdeko haur-eskoletako haurrekin grabatutako bideoak, liburuxkan jasotako kantak eta jolasak ikasi ahal izateko. Gainera, kultur agenda euskalduna ere ikusgai dago webgunean bertan, familiek gozatzeko euskarazko jarduerekin.

IÑAKI EIZMENDI ARSUAGAren GAKOAK

Hainbat urtez Ttakun Kultur Elkarteko teknikari izan ondoren, Ebete Hizkuntza Zerbitzuak sortu zuen 2007an. Ebetek baliabideak eta proiektuak garatzen ditu, haur eta nerabeen euskararen erabileran, gaitasunean eta motibazioan eragiteko; eta gaur egun erreferentea da eremu horretan. Iñaki Eizmendik berak eragile ezberdinekin egiten du lan: familientzako sentsibilizazio saioak, irakasleentzako ikastaroak, edota kiroleko eta eskola orduz kanpoko jarduerei begirako saioak eta proiektuak, besteak beste. Hainbat gidaren edukiak ere garatu izan ditu, eta zenbait ikerketatan hartu du parte. Oraingoan, hainbat gako ekarri dizkigu, familietako euskararen transmisioan laguntzeko.

Gozatu euskara ematen, eta heldu erabileraren erronkari

BURUNTZALDEA EUSKARA

Hiru multzotan banatuta, hainbat gako plazaratu ditu Ebete Hizkuntza Zerbitzuakeko Iñaki Eizmendi Arsuagak, familietan euskararen transmisioa eman dadin laguntzeko eta errazteko.



Iñaki Eizmendi Arsuaga, Ebete Hizkuntza Zerbitzuak-en sortzailea.

GOZATU EUSKARA EMATEN

Zuen seme-alabek euskara aberatsa izatea, familion ardura ere bada. Zer da euskara aberatsa izatea? Edozein egoera eta harremanetan euskaraz (ere) eroso aritzeko gai izatera iristea: lagunartean, ikasketetan, helduekin harremanean, kirolean, aisialdian…

►Eskaini euskara etxetik: euskalduna bazara, jolastu hizkuntzarekin (hitz egin, abestu, ipuinak irakurri… zenbat eta gehiago, hobe!). Euskaraz ondo ez badakizu edo gutxi gutxi baldin badakizu, zaindu zuen hizkuntza eta eskaini euskara eguneroko esamoldeen, abestien eta jolasen bidez.

►Zaindu etxean euskarak duen lekua: euskara entzun eta bizitzeko aukera izan dezatela. Giroan egon dadila euskarazko edukien bidez: musika, ipuinak, aldizkariak…Eta zuek ere egin euskarari lekua etxean: irratia, prentsa, telebista…

►Eskaini ahal duzuen euskara guztia ingurune hurbilean. Bereziki, eskolaz kanpoko jardueretan: euskarazkoak hautatu, eta euskararen presentzia eta erabilera zaindu ditzatela eskatu. Erabiliz garatzen da gaitasuna.

HELDU ERABILERAREN ERRONKARI

Lagundu diezaiegun lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskara erabiltzeko benetako aukerak izaten.
Zer da erabileraren erronka? Euskara erabiltzea ez da aukera soil bat, ibilbide baten ondorioa izaten da. Lagundu txikiak direnetik ibilbide indartsua izaten.

►Eredu indartsuak eskaini: euskaldunon kasuan, ikus dezatela euskarak balio dizuela eguneroko bizitzan. Benetako Ahobizi edo Belarriprest bazarete, eredu bikaina eskainiko diezue seme-alabei.

►Bizipenak eta erreferenteak eskaini: euskaraz diren bizipenak eta erreferenteak behar dituzte euskara balio indartsuekin lotzeko. Eskolaz kanpoko jarduerak oso lagungarriak dira.

►Euskaraz bizi diren talde eta giroetan parte hartu edo harremanetan jarri: euskarazko ekitaldietara joan (zinema edo antzerkia, adibidez) eta euskararen aldeko ekitaldietan parte hartu (Korrika, Euskararen Eguna edota Euskaraldia).

ESKOLAK BADU ARDURA, BAINA MUGAK ERE BAI

►Lagundu eskolari hizkuntzak irakasteko bidean: etxetik eta ingurune hurbiletik euskara asko eskaintzea familion ardura da, eta eskolak mugak ditu euskara aberatsa eskaintzera begira.

►Euskararen erabilerarekiko interesa erakutsi: galdetu irakasleekin egiten duzuen bileretan euskararen erabilerari buruz, eta kontuan izan beraien aholkuak.


Itzal ona



Hona hemen mailu-arrain bat, olagarro bat eta bi sardina. Zein da horien itzal zuena?

Engainagarriak

Zortzi txatal horien artetik erdiak iruditik hartuta daude, eta gainontzeko laurak engainagarriak dira. Hau da, ez dator bat irudi nagusiarekin.



Soluzioak 24. orrialdean.

HIZKI-MARRAZKIEN ALFABETOA




Zeer?!

Eman iruditxo bakoitzari bere hizkia, arraiak zer pentsatzen duen jakiteko. Horretarako, erabili hizki-marrazki alfabetoa.



('Don Inorrez' abestitik hartuta dago).




Aldea dago!




Iruditxo hau ondoko irudi handian ere ageri da, baina bata eta bestea ez dira berdin-berdinak. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.

Mozorrotu

Begira zer zintzo itxura duten Nikolek eta Joanesek. Bihur itzazu banpiro! Marraztu bakoitzari letagin luzeak, kapa beltz bat, begi-zulo sakonak, odol arrastoak eta bururatzen zaizun guztia. Apaindu ingurua ere. Eta ondoren, margotu.



Dadoa



Sei dado hauetatik hiru bat datoz irudi zabalduarekin, eta beste hirurak ez. Zeintzuk dira zuzenak eta zeintzuk okerrak? Asmatzea zaila bazaizu, ebaki irudi zabaldua eta muntatu dadoa. Aise bereiziko dituzu.

Soluzioak 24. orrialdean.

Greba orokorrak Usurbil geldiarazi zuen

Etxebizitza eta soldata duinen aldeko azaroaren 11ko greba orokorrak jarraipen zabala izan zuen herrian.

Usurbil geldiarazi zuen etxebizitza eta soldata duinen alde LAB, ELA, ESK, STEILAS ETXALDE, HIRU sindikatuek Etxebizitza Sindikatuen Sarearekin eta Etxebizitzaren Sindikatu Sozialistarekin batera azaroaren 11n deitutako greba orokorrak. Pertsianak jaitsita, ateak itxita zituzten udal instalakuntzek baita zerbitzuen alorreko, ostalaritza eta merkataritza establezimenduek ere. Anbulatorioan gutxieneko zerbitzuak tarteko, Hernanira jotzeko kartelak esekiak zituzten. Lurraldebuseko zerbitzuetan ere gutxieneko zerbitzuak eskaintzeko ohartarazpen oharrak jarriak zituzten. Ikastetxeek ere bat egin zuten greba deialdiarekin, baina gutxieneko zerbitzuak eskaini beharrean izan ziren.

Kanpaldia

Usurbilgo LAB Asanbladak deitu zituen herri mailako mobilizazioak bezperatik Mikel Laboa plazan kokaturiko kanpaldiarekin. Grebaren epizentroa izan zen. Lotarako gunea egokituta, belaunaldiarteko topaketan bilakaturiko informazio bilera egin zuten eta gauean, lehen herri bira herrian barrena. Biharamunean, goizaldean Usurbil nahiz Lasarte-Oria aldeko grebalariek N634 errepideko trafikoa eten zuten Troia parean. Herri agerraldia egin zen goizean zehar, frontoi atzealdeko eremuan, Donostiako manifestazioarekin bat egin aurretik. Arratsaldean, eskualde mailako manifestaziora batu ziren usurbildarrak Lasarte-Orian.



N634 errepideko trafikoa eten zuten grebalariek Troia parean.

GREBAREN EPIZENTROA IZAN ZEN MIKEL LABOA PLAZAKO KANPALDIA



Mikel Laboa plazan eginiko kanpaldia.



Gutxieneko zerbitzuak ezarri ziren zenbait sektoreetan.


Udal instalakuntzak nahiz tokiko saltokiak itxiarazi zituen greba deialdiak.



Lasarte-Orian eginiko eskualdeko mobilizazioa.



Mikel Laboa plazako kanpaldian eginiko herri agerraldia.

Pobretzearen eta errentismoaren aurka egin zen greba

Etxebizitza larrialdiaz sarri hitz egin eta hainbat aldarri egiteko baliatu zen iragan azaroaren 11ko greba orokorra.

ARITZ LASARTE

Usurbilgo LAB Asanbladak Mikel Laboa plazan antolaturiko kanpaldiaren baitako herri agerraldian nabarmendu moduan, "pobretzearen eta errentismoaren" aurkakoa izan zen egun hura, "Euskal Herrian etxebizitza eta soldata duinak denontzat" galdegitekoa. Izan ere, "kapitalaren eta bizitzaren arteko talka gordindu egin da". Horregatik, egoera hau aldatzeko "presioa egiten jarraitu beharra" nabarmendu zuten. "LGS propio baten negoziazioari ekin diezaioten, hitzarmenetan soldatak duintzeko eta erosahalmena bermatzeko; presioa instituzioei, langileen aldeko politikak, politika birbanatzaileak, egin ditzaten. Hori da faxismoari eta oldarraldi erreakzionarioari atea ixteko bidea". Etxebizitza larrialdiari aurre egiteko egiturazko neurriak beharrezkotzat jo zituzten. Haien ardura Espainiako Gobernuarena eta Hego Euskal Herrikoena zela gogorarazi zuten.

Denbora luzerako gure artera heldutako auzia da honakoa, greba egunaren bezperako kanpaldian ohartarazi zutenez. Honenbestez, iragan asteko grebarekin "ez da ezer amaitzen".

"EUSKAL HERRIAN ETXEBIZITZA ETA SOLDATA DUINAK DENONTZAT GALDEGITEKO EGUNA IZAN ZEN"

"ETXEBIZITZA DA LANGILE-KLASEAREN POBRETZEAREN ARRAZOI NAGUSIETAKO BAT"

Antolatzeko beharra

Ildo beretik mintzatu ziren greba egunaren amaieran, usurbildarrek bat eginiko Lasarte-Oriako eskualde mailako mobilizazioaren amaieran ere. "Etxebizitza eskubidea bermatzeko espekulazioari ez! Espekulatzaileak espropiatu. Espekulazioa debekatu. Etxebizitza beharrizanen arabera antolatu" aldarripean eginiko manifestazioaren bukaeran, Ernaik, Asunak Lasarte-Oriako Gazte Feministek, Mugimendu Sozialistak eta Txirikordako bizilagunen asanbladak plazararuriko manifestuan ziurtatu moduan, "etxebizitza da langile-klasearen pobretzearen arrazoi nagusietako bat" eta aldi berean, "espekulatzaile eta errentista gutxi batzuek inoizko irabazirik handienak pilatzen dituzte". Haiek jo zituzten etxebizitza larrialdiaren erruduntzat; "espekulatzaileak, errentistak, higiezin enpresak eta haiek defendatzen dituzten politikariak". Horren aurrean, "euskal langile-klaseak batu egin behar du, etxebizitzaren arazoaren alderik gordinena jasaten dutenen egoera erreferentziatzat hartuta". Izan ere, beharrezkotzat jo zuten auzia "ikuspegi transfeminista eta antiarrazista batetik lantzea", "negozio logikatik ateratzea". Ildo horretan, "bizi-proiektu kolektibo eta komunitarioak ahalbidetuko dituzten etxebizitza ereduak" aldarrikatu zituzten. Horretarako, "kapitalaren eta patronalaren interesekin konfrontatzeko" garaia zela zioten, "erantzukizun politiko eta instituzional guztiak" seinalatzearekin batera. "Espekulazioarekin eta errentismoarekin" amaitzeko espekulatzaileei ondasunak espropiatzea, etxebizitzaren erabilera espekulatiboa eta errentista debekatzea eta etxebizitza eta baliabide guztiak langile-klasearen beharren arabera antolatzea ezinbestekotzat jo zuten. Horretarako, kolektiboki antolatu eta borrokatu beharra nabarmendu zuten, balizko eskuineko gobernuak "ekar dezakeen eskubideen atzerakadari aurre egiteko, bai ezkerreko gobernuak eman nahi izan ez dituen aurrerapausoak lortzeko".



Usurbilgo EH Bilduk kartelak itsatsiz ekin zion kanpainari azaroaren 13an.



Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak ere kartelak ipiniz abiatu zuen hauteskunde kanpaina.

Bozketa egunaren atarian

Espainiako Gorteak (Madrilgo Diputatuen Kongresua eta Senatua) berritzeko azaroaren 29rako deitutako hauteskundeen atarian gara. Badira egun horri begira, nahiz bezperatarako kontuan hartu beharreko zenbait data eta hitzordu.

ARITZ LASARTE

Hauteskunde kanpaina betean gara azaroaren 13az geroztik. Hilaren 27ra arteko epealdia izango dute eragile politikoek, bi egun geroago izango ditugun Espainiako Gorteetarako hauteskundeetarako herritarren botoa eskatzeko. Tarte horretan, ordea, bada kontuan hartu beharreko bestelako datarik. Izan ere, ostegun hau izango duzue, hilaren 19a, posta bidez botoa ematea eskatzeko azken eguna Correosen bulegoan edo correos.es atarian, nortasun agiria edo norbere burua identifikatzeko baliokidea den dokumentua aurkeztuta. Gerora jasotako dokumentazioa osatu eta hilaren 25era arteko tartea izango da boto hori tramitatzeko.

Hauteskunde egunari dagokionean, azaroaren 29an, 9:00-20:00 artean izango dira zabalik hauteslekuak.

Aurten, bada nobedaderik, botoa emateko guneei dagokienean. Orain arte bezala, Udarregi ikastolaren eraikin gorriko erdiko aretoan (Gernika ibilbidea, 11), Aginagako eskolan (Erriberako kalea, 7), Santuenea Kultur Elkartearen egoitzan (Santuenea, 12) eta Zubietako Lanbide Eskolan (Zubieta, 9) kokatuko dira hauteslekuak. Gogoan izan, Donostia aldean bizi diren zubietarrek bertako eskola txikira jo beharko dute botoa ematera.

Txirikorda, hauteslekuetako bat

Kalezarren, orain arte haur eskolan izaten zen hauteskundeetan parte hartzeko aukera. Baina birgaitze lanetan dutenez, Ugartondoko Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioko sotoa (Lakizar kalea, 2) baliatuko dute hautesleku gisa hilaren 29an. Norbera non dagoen erroldatua, horren arabera, hautesleku batera edo bestera jo beharko du. Egun horretarako, zortzi hautesleku izanik, guztira 72 herrikide daude deituak azaroko azken igande horretako goizeko 8:00etan hauteslekuetan egotera; lehendakaria eta bi bokal hautesleku bakoitzeko eta haien bina ordezko hain zuzen. Haietatik 24 izango dira, lan egitea egokituko zaienak. Herritarrok hautatzeko zozketa hilaren 2an egin zuen Udalak.

OSTEGUN HAU DUZUE, POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO AZKEN EGUNA

Bi boto-paper

Gogoan izan, bi boto-paper ezberdin izango dira hauteskundeotan; Madrilgo Diputatuen Kongresua eta Senatua berritzeko bana. Usurbildarrek Gipuzkoak erakundeotan izango duen ordezkaritza erabakitzen lagundu ahalko dute. Herrialde honi dagokionean, Diputatuen Kongresuan sei eserleku izango ditu Gipuzkoak. Horiek ordezkatzeko hamaika hautagai-zerrenda lehiatuko dira: EHBildu, PSE-EE, EAJ-PNV, PACMA, Frente Obrero, Aulki Zuriak, VOX, Podemos, PP, PCTE eta Frente Amplio. Senatuan, aldiz, lau eserleku izango ditu Gipuzkoako ordezkaritzak. Horiek eskuratzeko zortzi hautagai-zerrenda lehiatuko dira: EH Bildu-ERC, EAJ-PNV, PACMA, Aulki Zuriak, Podemos, PCTE, SDP (PSOE-EZAN IU-MS) eta VOX.

BI BOTO-PAPER EZBERDIN IZANGO DIRA AZAROAREN 29KO HAUTESKUNDEOTAN

Datorren aldizkarian, Usurbilgo Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoetako hautagaien elkarrizketak kaleratuko ditugu.

Hurrengoak, maiatzean

Espainiako Gorteak berritzeko hauteskundeak egitearen honetan, 2023-27 legealdia amaitzear da baita Udalean ere. Lau urteko zikloa 2027an borobilduko da maiatzaren 23an egingo diren udal hauteskundeekin. Egun bera izango da, Zubietako Herri Batzar berria nahiz Gipuzkoako Batzar Nagusien osaera hautatzeko bozketa eguna ere.



62 unitatetik 67ra handituko du Euskotrenek egungo tren-flota.

Asteburuetan ere orduerdiroko tren zerbitzua

Donostiako Topo berria larunbat honetan, azaroaren 21ean jarriko du martxan Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren sailak.

4,2 kilometroko eremu berria izango da, "Amara, Kontxa-Erdialdea eta Bentaberri", eremu horietako geltokiak lotuko ditu topo berriak. Hiriaren erdialdea lurpetik zeharkatuko du trenak aurrerantzean. Helbide honetan aurki dezakezue gai horri buruzko informazio gehiago, topo.eus atarian hain zuzen.

Topo berri hori martxan jarriko den egunetik, hilaren 21etik aurrera hain zuzen, berrikuntza gehiago ere izango da udalerri hau zeharkatzen duen tren zerbitzuan. Izan ere, Aginagako tunelaren obrek ekar ditzaketen maiztasun aldaketen aurretik, aipatu Jaurlaritzaren sailetik iragarri dutenez, urte osoko asteburuetan orduerdiro izango da tren zerbitzua, Zumaia eta Pasaia artean, igande goizetan izan ezik, tarte horretan, orduero eskainiko baita.

Gogoan izan, orain arte udan baino ez zela eskaintzen orduerdiroko tren zerbitzua asteburuetan. Aurrerantzean, beraz, urte osoan, egunero, orduerdiro izango da trena Oriorantz nahiz Donostiarantz, igande goizetan izan ezik.

Tren gehiago, maizago

Horrez gain, badira berrikuntza gehiago ere. Izan ere, Usurbildik Donostiara edota Pasaia aldera joanez gero, larunbatetik aurrera, Topo berria tarteko, "garraio aldaketarik gabeko zerbitzua eskainiko du EuskoTrenek".

Aldaketa gehiago. "Jatorri eta helmuga desberdinak ordenatzeko asmoz, Euskotrenek bere lineen izena aldatuko du", iragarri dute. Hala, Matiko (Bilbo) eta Zumaia-Pasaia arteko zerbitzuak E1 izena izango du; T0 Añorga-Pasaia arteko ak eta T1 Lasarte-Oria-Irun/Hendaia artekoak.

Añorga-Pasaia tartean 7,5 minutuko tartean eskainiko da tren zerbitzua hilaren 21etik aurrera, orduerdiro Lasarte-Oria-Hendaia eta aipatu moduan, Zumaia-Pasaia artean, eta orduero Matiko/Bilbo-Pasaia artean.

Añorga-Pasaia tarteari dagokion zerbitzu handitzeak bikoiztu egingo du tren-zerbitzua. Pasantea martxan dagoenean, Euskotrenek aurreikusita dauka Añorga-Pasaia tarte komunean, hamaika geltokirekin, 276 zirkulazio egitea egunean, laneguneta ko zerbitzua osatzeko".

Horretarako, 62 unitateetatik 67ra handituko du Euskotrenek egungo tren-flota, "980 serieko CAF fabrikatzen ari den bost unitateak merkataritza-zerbitzuan estreinatzen hasten direnean. Tren horiek lau kotxe, 400 lagunentzako edukiera eta bainugela izango dituzte, eta irisgarritasunaren eta segurtasunaren arloko aurrerapen teknologiko guztiez gain, gero eta handiagoa den eskariari erantzuteko aukera emango dute, bai trenbide-eskaintza erregularrean, bai kultura-, kirol- edo jai-ekitaldietarako zirkulazio berezietan".

"AURRERANTZEAN ORDUERDIRO IZANGO DA TRENA ORIO NAHIZ DONOSTIRANTZ, IGANDEETAN IZAN EZIK"

Azoken asteburuaren atarian

Bi azoka antolatu dituzte azaroko azken astebururako:

Azaroak 28, larunbata

• 11:00-14:30 Hurbilagoren Udazkeneko Azoka Usurbilgo frontoian.
Zehaztasunak: "liburu eta diskoen azken nobedadeak, ipuinak, koadernoak, jostailuak, diseinu bereziko kamisetak, sudaderak, poltsak, motxilak, zeramika produktuak, bitxiak, laminak eta ilustrazioak, panpinak, kandelak, egurrezko produktuak eta gehiago".
• 11:30-14:30 Azokako salmenta postuak.
• 11:30-14:30 Tailerrak, Ziortza Gazte Elkartearen eskutik.
• Azokan zehar, gaztainak eta sagardoa doan, azokan eginiko erosketen truke.
• 13:30 650 Usurbil Bizi Otarraren aurkezpena.
• Antolatzailea: Hurbilago Elkartea.

Azaroak 29, igandea
25. Erle Eguna

• 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa, postreen bilketa, marrazki lehiaketa.
• 11:00-14:00 Azoka:
-Balerdipekoen eskutik tailerra.
-Ezti eta txokolatezko goxoak.
-Ezti dastaketa.
• 13:30 Sari banaketa: eztigintza, gozogintza, marrazkiak.
Antolatzaileak: Erle Lagunak, Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Erlezain Elkartea, Gorostitxo Eztiola, Mahala.

Abenduak 20, igandea

• Eguerdi partean, NOAUA!-ren San Tomas Azoka frontoian.
Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

txirriStra
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus



EH Bilduren udal gobernu taldeak aurreko astean aurkeztu zuen, 2027rako aurrekontu proposamena.

Ia hamasei milioiko udal aurrekontu proposamena 2027rako

Historikotzat jotako ia 16 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du egunotan EH Bilduren udal gobernu taldeak 2027. urterako, Legealdi Planeko nahiz "herri bat, lau misio" herri proiektuko erronkei erantzuten segitzeko. Datorren osoko bilkuran hasieraz onartu asmo dituzte.

ARITZ LASARTE

Goia jo ezinik dabiltza azken urteotako udal aurrekontuak. 2023an 13.168.200 eurokoak izan ziren, datorren urtekoak ia 16 milioi eurokoak (15.906.124,48 eurokoak). 2027koak "aurrekontu historikotzat" jo zituen udal gobernu taldeak haien iragan asteko aurkezpen agerraldian. Diru kopuruaren handitzea foru funtsaren %7ko gehikuntzak eragindakoa izan da. 6.634.630 euro jaso ditu udalerri honek. Igoera horretan eragin dute baita haien esanetan, "hainbat inbertsioei lotutako kanpo finantzaketak edo eskatu asmo ditugun maileguek eta zerga, tasa eta prezio publikoetan finkatutako igoerak eta azken urteetan izandako bilketa positiboak". EH Bilduren esanetan, datuok Udalak duen "gastu ahalmen handia eta aurrekontuen sendotasuna" agerian uzten dute.

Misioen logikan

Aurreko urteen ildotik, 2027. urteko udal aurrekontuak ere Legealdi Planeko nahiz "herri bat, lau misio" herri proiektuko erronkei heltzeko baliatuko dituzte, gizarte babesa indartu, trantsizio ekologikoan sakondu, herria zaharberritu, kultura sustatu edota "Udala gertu" misioan aurrerapausoak ematen jarraitzeko. Egitasmo nabarmenenen berri eman zuten iragan asteko agerraldian.

LEGEALDI PLANERAKO NAHIZ MISIOEN HERRI PROIEKTURAKO BALIATUKO DITUZTE

GIZARTE BABESA INDARTZEKO IA MILIOI BAT EURO BIDERATUKO DITU UDALAK GIZARTE ZERBITZUETARA

Herria berroneratzeari dagokionean, iaz onarturiko Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integralean (IUPI) oinarritutako lehen aurrekontuak izango dira 2027koak. Arlo horretan, industriaguneetako errepideak hobetzen segi eta Aginagako N634 errepide alboetako oinezko pasabidean konponketa lanak egingo dituzte. Horrekin batera, hiri altzari edo elementuak irisgarriago egiteko berritu edo egokituko dituzte. "Hiru proiektu ere idatzi nahi dira", udal gobernu taldearen esanetan, udaletxearen eta Barrenkaleren arteko lotura hobetzeko, San Inazioko biribilgunea eta ingurunea berrantolatzeko eta Benta taberna inguruko espazio publikoa konpontzeko. Udaletxearen bueltako eremuari lotutako proiektura begira, kreditu aldaketa bat bideratzekotan dira hurrengo urtean zehar.

Gizarte babesa indartzen jarraitzeko, iaz baino 144.000 euro gehiago, guztia ia milioi bat euro bideratuko ditu Udalak gizarte zerbitzuen sailera. Kopuru horretatik 400.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egingo dute "zaintza ekosistema berrira egokitu eta zaintza-lanak eta langileen lan-baldintzak hobetzeko, duintzeko", etxez etxeko zerbitzua indartzeko. Beste 50.000 euro iragarri dituzte, Beterri Buruntza Mankomunitatearekin batera "eskualde mailako inklusio estrategia definitu eta hortik eratorritako zerbitzu eta ekipamendu berriak" abiarazteko sinaturiko hitzarmeneko konpromisoei aurre egiteko. Azkenik, beste 145.000 euro baino gehiago bideratuko dituzte Usurbil eremu tentsionatu izendatzeko, Eusko Jaurlaritzari Udaletik proposaturiko etxebizitza-plana garatzen segitzeko; besteak beste, Etxebizitza Bulegoaren bidez herritarrei aholkularitza ematen segitzeko.

Horrez gain, haurren 16 jolasguneak pixkanaka berritze-

ko plana abiaraziko dute. 2027an, guneotako lurzorua material naturalarekin berritu eta kautxuzko lurra ezabatu asmo dute, horren "konposatu toxikoen inguruan sortutako zalantzak" tarteko. Auzoetako bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko eskuhartzeak iragarri dituzte Zubietan eta Aginagan, Santueneako taberna eraberritzen bukatzeko partida edota hilerri berriko irisgarritasuna hobetu eta aparkaleku gehiago sortzeko 60.000 euroko inbertsioa.



650 Usurbil Bizi egitasmoko "Errioaren Usurbil" eskaintza abiarazi asmo dute 2027an zehar.

Babestoki klimatikoak

Beste misioetako bati, trantsizio ekosozialari dagokionean, muturreko baldintzen aurrean, eraikin publikoak babestoki klimatiko bilakatzeko lanak egingo dituzte Sutegi udal liburutegian, Artzabalen eta Aginagako eskolan. 300.000 euro bideratuko dituzte zereginotara. Falta den argiterian (%66an jarria jada) LED instalakuntza ezarriko dute (276.000 euro). Horrez gain, hondakinen bilketa irisgarriagoa egiteko egokitzapenak egingo dituzte eta hobekuntzak iragarri dituzte, Zubietako, Atalluko eta Aginagako ekarpen guneetan. Alor honetan, udal baliabideak berritu eta elektrifikatzeko lan-lerroaren baitan, 280.000 euro baliatuko dituzte kale garbigailu elektrikoa erosteko.

650 Usurbil Bizi misioaren baitan, "Ez Dok Amairu"-ri eskainitako parkea lantzen hastekoak dira, "Errioaren Usurbil" eskaintza abiaraztearekin batera. Tokiko merkataritzan erreleboa sustatzen jarraitzeko dirulaguntzak ematen segiko dute, jarraipena emango diote Aginaga bizigarriagoa egiteko bertako kooperatibarekin izenpeturiko hitzarmenari eta ekarpena egiten segiko zaio Beterri Buruntza Mankomunitateari.

"Udala gertu" misioaren baitan, digitalizazioan aurrerantz jo asmo dute, zibersegurtasuna jorratzen segiko dute. "Herritarren Arreta Zerbitzua lantzen hasiko gara. Zenbait tramite txiki eskatu ahala eskuratzeko aukera emango digu", iragarri dute. Udal lantaldea ere indartuko dute, "lanpostu berriak sortzera goaz"; kultura eta informatika sailak indartuko dituzte, "etxebizitza teknikariaren programa plaza bihurtuko dugu, politika publikoen berrikuntzarako arduradunaren programa sortuko dugu eta lan-eskaintza publikoetarako programa berria sortuko dugu".

Arrobitxuloko obrak lizitatzear

Azkenik, kultura sustatzen jarraituko du udal gobernu taldeak, "gizarte kohesioan sakondu eta gure herriko tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko" bitartekotzat jotzen baitute. Ildo horretan sakondu nahi du, ikastola pareko zelaian eraikiko duten Arrobitxulo Elkarguneak. "Guretzat proiektu estrategikoa da", EH Bilduren esanetan. 2027ko udal aurrekontuetatik milioi erdi euro bideratuko dute egitasmo horretara, duela hilabete batzuk datozen bi urteotan milioi bat euro ordaintzeko onarturiko kreditu konpromisoaren baitan eta "Arrobitxulo eraikitzeko eskaturiko maileguaz harago". Berriki jasotako exekuzio proiektuaren ondotik, urte hasieran obrak lizitatu asmo dituzte.

Arrobitxuloz gain, arlo horretako dirulaguntzak indartuko ditu Udalak, "herri bizi honi bultzada" emateko. Kirol arloan, Oiardo kiroldegiko irisgarritasun baldintzak hobetu asmo dituzte; igogailua solairu guztietara heltzeko edota hainbat eskailera kenduko dituzte irisgarritasuna hobetzeko. Horrez gain, padel pista eraiki asmo dute. Horretarako, kalistenia parkea tokiz mugitu eta bere eskaintza indartuko dute, "ariketa fisikoa eta kirola kalean, naturarekin hartuemanetan egiteko".

ARROBITXULO ELKARGUNEAREN OBRAK URTE HASIERAN LIZITATU ASMO DITUZTE

KALISTENIA PARKEA TOKIZ MUGITU ETA BERE ESKAINTZA INDARTUKO DUTE

Egutegia

Udal aurrekontuok azaroko azken osteguneko udalbatzaren osoko bilkuran hasieraz onartu asmo dituzte, urte berriari ekitearekin batera indarrean egon daitezen. Horren aurretik, hamabost eguneko tartea du oposizioak ekarpenak egiteko. "Gu prest gaude adostasunetara heltzeko. Aurreko urteetan ere emendakin batzuk elkarrekin aurkeztu izan ditugu", gogorarazi dute udal gobernu taldetik. Horrez gain, urte garai honetan, Usurbilgo auzo eta herrietako norbanako eta eragileekin bildu izan da EH Bildu, aurrekontuetarako ekarpenak jasotzeko. Oraingo honetan, hauteskunde kanpaina betean egokitu denez, datorren urte hasieran egingo dute bilera erronda hori, urtean zehar haiekin egin ohi duten moduan, ekarpenak biltzen segi eta amaierara bidean den 2023-27 urte arteko legealdi honen balantzea egiteko.



Jurgi Fuentes Goikoetxea Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetan epaile lanetan jardungo da.

"Presio gehien, lana ondo egitearekiko nabaritzen dut"

JURGI FUENTES GOIKOETXEA EH-KO BERTSOLARI TXAPELKETAKO EPAILEA

Finalaurrekoetan da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Fase horretatik finalerako lehiakideak hautatzeko lanetan ari da Usurbilgo mungiar Jurgi Fuentes Goikoetxea.

ARITZ LASARTE

Zein da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako epaile baten egitekoa?

Aurkezten diren bertsolarien artean batzuk aurrerago eta beste batzuk atzerago kokatzea. Txapelketak hori eskatzen du, bati txapela jartzea. Horretarako, nahitanahiez sailkapen bat egin behar da.

Lehen faseko saioen epaileen artean ez zinen egon.

Oraingoan, epaile asko bada taldean, orduan, banatu egiten gara irizpide askoren arabera; adina, generoa, esperientzia, herriartekotasuna... Aurtengoan, finalerdien bigarren itzulia epaitzea egokitu zait. Aurtengo nire ardura nagusia eta nire taldekideena edizioko finalistak aukeratzea izango da.

Fase honetan lehenbiziko aldiz ariko zara epaile gisa?

Fase honetan bai. Ardura handia da, guretzako ohorea da hor egotea.

"AURTENGO NIRE ARDURA NAGUSIA ETA TALDEKIDEENA, ZAZPI FINALISTAK AUKERATZEA IZANGO DA"

Nola prestatzen zarete epaileok?

Formakuntza saio asko egiten dira, batez ere txapelketa aurretik. Euskal Herriko Txapelketa lau urtean behin egiten da eta Euskal Herrikorako aurreko urte horretan egiten da. Baina Euskal Herrikorako epaileok probintzietatik joaten gara. Ni Bizkaiko taldean nago.

"IA URTERO GAUDE FORMAKUNTZA SAIOETAN. HALAKORIK EZEAN, TXAPELKETAK DAUDE"

Bizkaian bi urtean behin dugu txapelketa bat. Orduan, esan dezakegu, ia urtero gaudela formakuntza saioetan. Formakuntzarik ez dagoenean txapelketak daude.

Formakuntza saioetan zer lantzen da?

Pixka bat denetarik. Trebatze saio ohiko bat izan daiteke, aurreko txapelketa batzuetako bertso saioak entzun eta horri buruzko ahoz gorako epai bat egitea. Kasu askotan, zenbakiak ez du hainbeste garrantziarik, baizik azaltzea norberaren irizpideak beste irizpide orokorrekin batera; zer jotzen den onargarria, zer ez. Guk askotan esaten dugu, batzuetan akatsak edo gaizki-ulertuak egon diren saioak epaitu behar direla. Baina beste hainbesteko garrantzia du bertsoaldi onak eta gustukoak entzuteak, puntuazio ona ematen ikasteko eta akatsetan soilik ez geratzeko.

Nola iritsi zara txapelketa horretako epaile izatera?

Epaile bukatzeko mundu horren barruan egon behar zara. Epaile sartu nintzenerako urte asko neramatzan bertso-eskolara astero joaten, lagunartean kantatzen. Egia da, nik jendaurrean ez dudala askotan kantatu, ez bada gertuko jendartean. Bertsozalea denak edo mundu horretan dagoenak hainbat rol ditu; entzule moduan jarraitzea, gai-jartzailea, antolatzailea, bertsolaria edo epailea izatea. Ni izan naiz entzulea, bertso-eskolako irakaslea, gai-jartzailea. Epaile baten beharra zegoen, ni han nengoen eta horretan jarri nintzen. Hasieran, eskualde mailan urte dezente egin eta gero, txapelketa ordua zen. Bizkaikorako sailkatzeko egiten ziren eskualdekoetan, etxe inguruan egiten ziren halako saio batean sartu nintzen 2010ean eta gaur arte.

Ordutik zer nolako bilakaera sumatu duzu?

⟶ Gizartearekin batera aldatu da. Ez dut gauza berririk esango orain, baina epaile moduan asko hausnartu eta gero saiatzen garena da, alde onari jartzen garrantzia. Irizpide asko objektiboak dira eta errazagoa da zigortzera joatea. Baina azken urteetan asko pentsatu dut horri buruz eta saiatzen naiz, alderdi onari garrantzia ematen.

Epaiketa eta epaile hitzak entzunda, segituan zigorra datorkigu burura.

Askotan ere izena aldatu behar ote genukeen pentsatu izan dugu; puntu-emaile, agian, egokiago izan daiteke epaile baino. Askotan, arte edo sorkuntza adierazpen bat den aldetik, zalantzan jartzen da, epaitu behar den edo ez. Egon daiteke horretan zalantza, baina zalantzarik ezin da egon, txapelketa bat egoteko epaitu egin behar dela. Azkenean, sailkapen bat egin behar dugu eta lehiakide bakoitza geratuko da bere postuan, emaitzen arabera. Horrek ez du esan nahi batzuk besteak baino okerragoak direnik. Saio batean, txapelketa batean, hurrenkera batean jarri behar dira, hainbat irizpideen arabera.

Aipatu duzun izen berriak, puntu-emailearenak, bidelagun izaera handiagoa luke.

Epaitzerakoan hitz hori asko erabiltzen dugu; bidelagun izatearena, bertsolariaren tokian jarri behar garela, bera ulertzen saiatu, zer esan nahi izan duen. Zalantza daukagunean ere beti egiten dugu bertsolariaren alde. Azkenean, batzuk gusturago geratuko dira beste batzuk baino, baina hori da gure lana. Aurten egin dira saioak bertsolariekin, gai-jartzaileekin eta epaileekin batera, esperimentu moduan. Ahoz gora hitz egiten da gai horiei guztiei buruz.

Nola irudikatu behar dugu epaile baten jarduera unea?



Jurgi Fuentes Goikoetxearen eta taldekideen lana izango da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalistak hautatzea.

Oso kontzentratua egon behar da, oso adi. Azken finean, bertso bakoitza zerotik hamarrera epaitzen dugu eta hor, irizpideetako arlo asko eta asko eduki behar ditugu kontuan. Gure lana litzateke saio bat entzutea kontzentrazio maila gorenarekin eta aurretik, saio asko entzunda eta trebatuta egotea, gai izateko zenbaki bat jartzeko. Segundoetako kontua izaten da.

Zuen lana kanpotik ezerk baldintzatzen du?

Presio gehien ardurarekiko eta lana ondo egitearekiko nabaritzen dut. Txapelketa garaian, ez naiz zalea sare sozialetan ibiltzekoa, saiatzen naiz hedabideetako saioen iritzi-artikuluak ez irakurtzen, ahalik eta gutxien eragiteko. Azkenean, baldintza dezake neurri batean eta ez da komeni.

"BATZUK GUSTURAGO GERATUKO DIRA BESTE BATZUK BAINO, BAINA HORI DA GURE LANA"

Euskararen aurkako oldarraldi betean heldu da txapelketa.

Oldarraldiarena ukaezina da. Arlo askotan ikusten da, epaiketetan amaitzen dute gauza askok. Txapelketak euskarari ematen dion erakusleihoa beti izan da oso garrantzitsua. Arnasgune bat da bertsozaleak, eremu euskaldunetako jendea pizteko; eta ez euskaldunetakoak euskarara, bertsozaletasunera eta bertsolaritzara gerturatzeko.

Erronka nagusia bada, txapelketatik kanpo bertsolaritza plazetara hurbiltzea.

Azkenean, eguneroko lana da garrantzitsuena. Herri asko eta askotan lan handia egiten da hezkuntza arautuan eta aisialdiko guneetan ere bai. Txapelketa bertsolaritzan beti izan da inflexio puntu bat. Lau urtean behin gertatzen da eta korronteren edo bertsokeraren bat aldatzen bada, beti txapelketarekin batera izan da. Bertsozale Elkartetik zazpi probintzietan saioak egiteko ahalegina egiten da, txapelketarik gabeko urteetan ere aurrera egiteko.

"BERTSOAZ ETA BERTSOLARI GUZTIEN LANAZ GOZATZERA ANIMATUKO NITUZKE"

Udarregi ikastolan bertso-eskola abian da, transmisiora begira garrantzitsua ezta?

Bai, eta txikitatik hasten da. Bertso-eskolako irakasleak ere bertso plazetan ibiltzen dira eta erreferentziazkoak dira umeentzako. Eskoletan hasten da bidea. Nagusien taldea ere martxan da. Astero biltzen dira. Helduen taldean une honetan dagoen jendea, bat-bateko saioetan aritzen da. Tarte atsegin bat igarotzen dute astero. Urtean zehar, badaude hainbat ekitaldi bertsolarien parte hartzea izaten dutenak. Normalean, beti prest egoten da baten bat laguntzeko.

Zer begiradatik gertura gaitezke txapelketa honetara?

Bertsoaz eta bertsolari guztien lanaz gozatzera animatuko nituzke, denen lana baloratzera eta denetaz gozatzera. Jende guztiak egin du lan piloa horra iristeko. Denek merezi dute entzunak izatea.

Euskararen Astearen atarian

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, eragile ezberdinek antolaturiko Euskararen Asteari emango diote hasiera egunotan.



Euskararen Galarako sarrerak usurbilkultura.eus web gunean eskura daitezke.

Azaroak 18, asteazkena

• 18:00 "Esnatu, Usurbil" dinamikaren aurkezpena Potxoenean.

Azaroak 21, larunbata

• 17:00 Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren "Muxu bete urte" ikuskizuna Oiardo kiroldegian.

Zehaztasunak: "Musuz bete ditzagun udazkena, negua, udaberria eta uda. Musuz urtea eta bizitza. Musuekin gure lurra ere biraka jartzen delako, kantuan eta dantzan. Eta gu berarekin! Ze zapore du marigorringo baten musuak? Konta daiteke urte oso bat musutan? Zatoz pailazookin eta jakingo duzu!".

Sarrerak: 8 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri azaroaren 3tik aurrera.

Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.

Azaroak 28, larunbata

• 22:00 Euskararen Gala Aginagan, Eliza Zaharrean.

• Musika: Anne Etchegoyen, Anuk eta Elene, Patrice Dumora (Akelarreko abeslaria).

• Antzerkia: "Heroiaren mina" (Gaizka Chamizo).

• Dantza: klake dantzariak.

• Bakarrizketak: Txiki, Idoia Torregarai, Janire Atxurra.


• Magoa: Tor magoa.

• Marrazkilaria: Unai Gaztelumendi.

• Sarrerak: 10 eurotan salgai, usurbilkultura.eus plataforman.

Antolatzailea: Eliza Zaharra Elkargunea.Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

"EUSKARAREN GALA AZAROAREN 28AN OSPATUKO DA AGINAGAN"





'Plazan Bazan' 14/15. orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943 498 917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529.

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 370668 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. Orduka edo interna moduan aritzeko disponibilitatea. 676 282 206.

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Esperientziaduna. 666582423.

Titulu soziosanitarioa eta erreferentziak dituen emakume bat naiz eta zaintza lanak, interna moduan zein orduka aritzeko lan baten bila nabil Usurbil edo inguruan. 618814363.

Gauez pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen neska bat naiz. Titulazioa eta 25 urteko esperientzia dauzkat. 609647728.

Plantxa-zerbitzua edo laguntzaile lanetan orduka aritzeko lan bila dabilen emakume bat naiz. 614349021.

Etxeko lanetarako nahiz zaintza lanetarako lan bila nabil. 676 282 206.

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia dauzkat. Interna moduan, orduka, gauez edo egunez, astebukaeratan. Ikasketa homologatuak. 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. 747 446 091.

BESTELAKOAK

Bigarren eskuko ordenagailu eramangarri bat daukat salgai. Lenovo markakoa. 675 886 442.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Futbol partidak

Haranen

Azaroak 21, larunbata

- 16:15 Mutilen Infantil Handiak: Usurbil FT-Ostadar S.K.T.
- 17:45 Gizonezko kadeteen 1. maila: Usurbil FT B-Zestoa B
- 19:45 Gizonezkoen Gorengo Maila: Usurbil FT-Danena K.E.

Azaroak 22, igandea

11:00 Emakumezkoen Gorengo Maila: Usurbil FT B-Antigua Luberri K.E.

Haranetik kanpo

Azaroak 21, larunbata

- 09:00 Infantil nesken F-8 Kopa, Berion: Santo Tomas Lizeoa K.E. C-Usurbil FT
- 11:00 Mutilen infantil txiki, Kopa 1. Fasea, Ubitarten: Euskalduna Andoaindarra-Usurbil FT
- 15:30 Gizonezko jubenilen Gorengo Maila, Mojategin: Mondragon C.F. B-Usurbil FT
- 18:00 Gizonezko erregionalen 1. Maila, Unben: Eibartarrak F.T. B-Usurbil FT B

Azaroak 22, igandea

Zehazteke: azaroaren 22an emakumezko ohorezko erregional mailako taldeak Irauli-Bosteko K.K.-ren aurka jokatuko duen partidaren hitzordua.

Pilota partidak

Azaroak 19, osteguna, 19:00:

- Infantilak banaka errendimendu txapelketa:
  - Ostolaza (Pagazpe)
  - Orue (Arrasate)
  - Barandiaran (Pagazpe)
  - Retolaza (Bergara)

- Nagusiak Gipuzkoako buruz buruko 1. Mailan:
  - Santxo (Pagazpe)
  - Altuna (Tolosa)

Azaroak 20, ostirala, 17:30:

- Alebinak banaka errendimendu txapelketa:
  - Sanchez (Pagazpe)
  - Ortiz De Murua (Lapke)

- Kadeteak Gipuzkoako buruz buruko 2. Mailan:
  - Alejo E. (Pagazpe)
  - Aldaba (Arkirun)

- Nagusiak Gipuzkoako buruz buruko 3. Mailan:
  - Errasti (Pagazpe)
  - Orbegozo (Ospele)

Azaroak 21, larunbata, 16:00:

- Buruntzaldeako alebinen eskolarteko pilota topaketa.

HILDAKOAK



Maria Luisa Carrera Urcola
Azaroaren 12an hil zen 94 urterekin.



Mari Carmen Azpiroz Alsua
Azaroaren 10ean hil zen, 91 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa
Mezua bidali *erredakzioa@noaua.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa
Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 19

USURBIL Santa Zeziliren omenezko kalejira eta kontzertua

18:00 Kalejira Zumarte Musika Eskolatik hasita. 19:00 Talde instrumentalen saioa Sutegin.

USURBIL Hitzaldia, Usurbil 1936 elkartearen eskutik

Aitzol Arroyo historialaria eta Aitor Azurki kazetariaren eskutik.
19:00 Potxoenean.

OSTIRALA 20

SANTUENEA Santuenea Martxan! tailerra

Ekintza: ontzien dekorazioa.
17:00 Santueneko ludotekan.

USURBIL Udazkeneko organo-kontzertua

Ignacio Arakistainen kontzertua.
19:00 Salbatore elizan.

LARUNBATA 21

USURBIL Bizipoza Jardunaldia

09:30-13:30 Sutegin.

SANTUENEA Santuenea Martxan! tailerra

Belarritako eta koilareen tailerra.
10:30 Frontoi ondoko lokalean.

USURBIL Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore

17:00 Oiardo kiroldegian.



Larunbat honetan arituko dira Oiardo kiroldegian.

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore bueltan dira

Pailazoek ikuskizun berria aurkeztuko dute larunbatean Oiardo kiroldegian. "Musuz bete ditzagun udazkena, negua, udaberria eta uda. Musuz urtea eta bizitza", hortxe sudur gorrien gonbidapena. "Musuekin gure lurra ere biraka jartzen delako, kantuan eta dantzan. Eta gu berarekin! ".

Azaroak 21, larunbata

- 17:00etan, Oiardo kiroldegian.
- Sarrerak: 8 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri azaroaren 3tik aurrera.
- Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea eta Usurbilgo Udala.

'Musikalean' deialdia

Azaroak 19, osteguna

- 18:00 Kalejira Zumarte Musika Eskolatik hasita. Triki-pandero, haizezko eta perkusioko ikasleak.
- 19:00 Hainbat talde instrumentalen emanaldia Sutegin.

Bizipoza jardunaldia

Larunbat honetan izango da 09:30-13:30 artean, Sutegin. "Nola kokatu haurren eskubideak erdigunean? Eta errealitate bihurtu?", hortxe Bizipoza elkartearen aurtengo edizioaren izenburua.

Usurbil 1936 elkartearen hitzaldia

'Euzkadiko borrokalarietako bat naiz. Internazionalistak Gipuzkoan 1936ko Gerran' ikerketa aurkeztuko dute Aitzol Arroyok eta Aitor Azurkik, ostegun honetan 19:00etan Potxoenean.

Organo kontzertua

Ignacio Arakistain organojoleak emanaldia eskainiko du ostiral honetan, 19:00etan Salbatore elizan.

Bisita gidatuak

Azaroak 25, asteazkena

- 10:00-11:00 'Zero Zabor' bisita gidatua.

Azaroak 27, ostirala

- 10:00-11:30 'Zaintzaren Usurbil'.

Abenduak 12, larunbata

- 11:00-12:30 Salbatore elizaren ondarea eta organo erakustaldia (gaztelaniaz).

Erreserbak: 650usurbilbizi.eus

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN
943 360 321
noaua@publizitatea.eus

Patri
Patrienea Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

OFIZIOEN GIDA



IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L
·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA
630 90 02 79 AGINAGA

maiz hornigaiak
·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA
suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

ITZIRA ERAIKUNTZAK
·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak
943 530 337
722 818 206
errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

ARANKA BERRIKUNTZAK
·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra
Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
Hipodromo kalea 10, LASARTE
Tel.: 693 05 93 92 uraitz@uraitz.com

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

Antonio Urruzola
AROZTEGIA
687 845 599 - 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

USURBIL
J. R. IBARGOIEN S.L
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK
www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@hotmail.com
943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859
943 361 380
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL

hartele
Antenak - Atezainak - Bideo-zaintza
943 287 742 / 629 121 355

APARICIO
PINTURA LANAK
Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

AÑORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak
943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA•GASA•AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA•ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain iturgintza
TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com

EKITALDIA



Azaroak 21
12:00
Frontoia

Garantía y derechos

Usurbilen

POSIBLE EGIN.



Mertxe Aizpurua
Oihana Etxebarrieta
Maddalen Iriarte



ehbildu